

## FUNTSEZKO JARDUERAK

Gure proiektua aurrera ateratzeko, ezinbestekoa da hainbat jarduera burutzea gure negozio-ereduak funtziona dezan. Besteak beste:

- 1) Lehenik eta behin gure **lan-taldea osatu eta betebeharrak desberdinak banatuko ditugu**. Batzuk webguneaz eta plataformaz arduratuko dira, beste batzuk bezeroarekin harremanetan jartzen, psikologa batek gazteen zalantzak argituko ditu eta azkenik diru kontuak eramaten dituen langile bat egongo da.
- 2) Ondoren gure negozio estrategia planifikatu eta **plataforma eta webgunea sortzen** hasiko gara, internet bidez eskaintzeko gure zerbitzua. (baita sare sozialak)
- 3) Plataforma sortutakoan, bezeroekin harremanetan jarriko gara gure **produktua saltzeko** asmotan. Horretarako batzarrak egingo ditugu eta kontaktuan jarriko gara institutu, unibertsitate edo udaletxeekin.
- 4) Akordioak lotutakoan, gure zerbitzuak eskaintzen hasiko gara, sortu daitezkeen arazoak konpontzen eta gure proiektua ahalik eta gehien zabaltzen. Garrantzitsua da **bezeroarekin harreman estua** sortzea ere.
- 5) Bitartean plataformara edukia gehitzen joango gara, gazteen beharrak asetzeko asmoz eta eguneratuta egoteko asmoz. Hau da, **salmenta ondorengo zerbitzu egokia** emateari garrantzi handia ematen diogu.